

Oroimen bizia  
**GALLETERAS**  
Memoria Activa



**Pripublikarrak elkarteak sortu eta antolatutako egitasmoa, Bilboko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Saila eta Emakume eta Garapenerako Lankidetzako Sailen enkarguz**

**Pri**publikarrak

[www.pripublikarrak.net/blog](http://www.pripublikarrak.net/blog)

**B**

**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

Emakume eta Garapenerako Lankidetzako Saila  
Área de Mujer y Cooperación al Desarrollo

**B**

**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

Hirigintza eta Ingurumen Saila  
Área de Urbanismo y Medio Ambiente



Udaletxeko emakume eta hirigintza sailak **Pripublikarrak** taldearekin kontaktuan jartzen dira Galleteras-en oroimenean ekgitasmo bat garatzeko. "**Galleterak. Oroimen bizia**". Proiektu kultural honek emakumeen lana, emantzipazioa eta borroka sinbolizatzen duen gremio baten memori historikoa berreskuratzen du.

Intrahistoria pertsonalen bidez Bilboko hiriaren eraiketan lagundu zuten emakumeak antzeman eta gogorarazi nahi ditu. Emakume hauek egindako ahalegin, lan eta eskabideak Deustuko Erriberaren garapen industrialan ikur bilakatu dira. Emakumeak nagusi izan ziren, zirga, bakailautegi, "jute" fabrika, kalamu trentza, bela joste eta bestelako utzigintzako lanpostu laguntzaileetan. Proiektu honek, aintzat hartu nahi du emakume guzti hauek eginiko lana galleteren kasua eredu izanik.

"**Galleterak. Oroimen bizia**" -k gizarte industrial batetako galleterak ezagutu eta gaur egungo *galleterak* nortzuk diren jakiteko ahalegina egingo gu, diskurtsoak gaureguntzeko. Hortaz, egungo lan eskubideak hobetzeko ahaleginetan dauden emakumeei tarte emango zaie, iragana ezagutuz gaur eguna aktibatzea xede duen proiektua baita. Ekoizpen honek ez du emakumearen lanaren ikerketa bat soilik baizik eta emakumeen lana indartu ere, emakumeak izan bait dira lan egin duten gehiengoa "**Galleteras Oroimen Bizia**" aurrera eramateko



“**GALLETERAS. Memoria activa**” egitasmo zabal honek atal ugari ditu:

1

[www.galleteras.net](http://www.galleteras.net)

proiektu osoa parte hartzeko moduan azaldu ahal izateko aro industrialeko (galletak sinbolo bezala hartuta) eta industria osteko aroko langile emakumezkoei buruzko artxibo biziduna bihurtzea lortzeko.

[www.galleteras.net](http://www.galleteras.net) orrialdeak hainbat atal interaktibo dauzka. “Dokumentazio”ari dagokion atal bat dauka zeinek “emakumea eta lan industrialak” nahiz “emakumea eta industria osteko lana”ri buruzko informazio esanguratsu hura guztia jaso nahi baitu eta hau ikerketa propio nahiz pertsona ezberdinek eginiko ekarpenekin osatzen da.

Web orrialdeak proiektua bizirik mantenduko du, partaidetza ezberdinen bidez etengabeko garapena jasaten duen artxibo bat izanik.

“Ikus-entzunezko”an galletagileen argazkiak ekarri ahal dira; bestetik, “emakumea eta industria osteko lana”ri dagokionean galdera ugari daude zeinek eztabaidari bidea emateaz gainera emakumezko langileen laneko eskubideen aldeko borrokarako aukera eguneratzea bilatzen baitute. Jadanik iritzi ugari jasotzen ari dira.

**Queremos saber tu opinión / Zure iritzia jakin nahi dugu.**

Ondorengo galderak erantzunez parte hartu ahal duzu

[www.galleteras.net](http://www.galleteras.net) helbidean:

Nola uztartzen dira etxeko lana eta kanpoko lanorduak?

Nolakoak lirateke gaur egungo Galleterak?

Behin behinekotasuna lan alorrean baino ez da ageri egun edo bizi eredura zabalzten da?

Bilboko hiriak ze garrantzia ematen dio emakumearen lanari?

Emakume langileen bizilekua lan lekua ere bada?

Lantegia lan eta protesta gune izan da orain arte, baina egungo behin behinekotasuna kontutan izanik, nola konpondu elkargunerako lekuen falta hori?  
Zeintzuk dira egungo emakumezkoen lan eremu nagusiak?  
Zein aukera dago egun elkarte zein sindikatu bidez kexak azaltzeko?  
Zein da emakumearen lan egoera gaur egun?

## 2

### **“Las Galleteras de Deusto. Mujer y trabajo en el Bilbao Industrial” liburua**

**Marta Zabala** eta **Maite Ibáñez** historialariek idatzi dute Bilboko Udaleko Emakume eta Garapen Sailaren enkarguz. Ohikoak diren ikerketa bidea, hala nola, artxibategi publiko eta pribatuen kontsulta eta bibliografia eta hemerrotekako material bilketa, Artiach Fabrikako langileei eginiko elkarrizketekin osatu dute. Zabala eta Ibáñezek azpimarratu dutenaren arabera emakume langile hauek, Deustuko Erriberako industri jardueretan izandako eragina nekez azaltzen da orain arteko testuetan.

Liburu honen helburua, XX. mendeko Bilboren garapen sozial eta ekonomikoan Artiach fabrikak eta bere lantaldeak, emakumez osaturikoa nagusiki, izan zuen ekarpen eta garrantzia gogoraraztea da.

“*Galleterek* beraiekin izandako berrikeretan ofizio baten ikasketaz, makinekin izandako harremanez, lanorduez eta lanordu bikoitzez, gizonen presentzia edo ausentziaz espazio ezberdinetan, generoen arteko konpetitibitateaz zein nagusiekin eta lankideekin izandako harremanez hitz egin digute.

Baina lan alorrarekin loturiko datu hauetaz gain, gainjarritako elkarrizketa eta narrazioek, iraganaren deskribapenean haratago joateko aukera eman digute ingurune bat berreraikitzen lagunduz. Famili eta komunitatearen inguruko datuek jadanik historia bilakatu dena erakusten digute: etxeak, aisialdi eta denbora librerako

guneak, harreman sozialak, partehartze politikoa, etb. Gure iragana osatzen duten oroitzapen oparoak.” Liburutik hartutako pasarteak

### 3

## “Galleteras, memoria activa” bideoa

**Pripublikarrak** taldeak egina. Galletagile bezala lan egin zuten eta egiten duten emakumeen testigantza jasotzen du. **Zuriñe del Zerro Martínez, Aurea Teijido Díaz, Angelita Sánchez Arranz, Raquel Gutierrez Trasobares, Mari Carmen Plazas eta Mercedes Martínekin** eginiko elkarrizketak zeinetan bere eskarmentuaz, oroitzapenez, aldaketaz, berdin jarraitzen duenaz, itxaropenez eta abarrez hitz egiten baitute. Bada galletak bere bizitza izan direla eta izaten dihardutela esaten duenik Erriberan jaio izanagatik eta bertan hala nola garai baten zehar Artiach fabrikaren etxe batean bizi izanagatik zeinetatik emakumezkoak bere eskubideak errebindikatzen entzuten baitziren. Guztiek dute hizpide borroka egoki bati legokiokoen egungo antolaketarik eza, besteren artean aldi baterako pertsonalak jasaten duten ezegonkortasunari buruzkoa. Orduan egiten ziren eta orain egiten diren produktuei buruz hitz egiten dute, baita bere txandakako lana familiako bizitzarekin nola uztartzen duten nahiz fabrikako bizitza eta abarri buruz ere.

Emakumezko hauen testigantzekin batera, ehun argazki baino gehiago ditugu zeinetan galleta-fabrikaren historiari dagozkion une ezberdinetan emakume ezberdinek eginiko lana ikusten baita, **Pripublikarrak** bilatu eta bildutakoak. **Iñaki Uriarte, Michelo Artiach, Mercedes Marín eta Zuriñe del Zerro Martinezek** irudiak dakartzate.

Bideoa **Aranzazu Calleja** konpositore eta biolin jolearen musikarekin osatzen da. Orain arte bere musika hamar laburmetraiarako konposatu du, zeinen artean ***Pero tú... ¿eres tú? No, yo soy su...*** (2003, Alaitz Arenzana, Maria Ibarretxe, 16 mm) nabarmendu behar baita; honekin CCCB-koartzelako Laburmetraien Nazioarteko 6. Festibaleko (MECAL) soinu-banda hoberenarentzako saria jaso zuen eta ***Eramos Pocos*** (2006, Borja



Cobeaga) festibal ugaritan saritua izateaz gainera Akademiako Oscar sarietarako hautatua izan zen. Azkeneko lan honekin Soriako Hiriko Laburmetraien 7. Lehiaketan soinu-banda hoberenarentzako saria irabazi zuen. Telebistaren arloan **Erletxea** (3koma, 2006) ala TVE 1-eko eta 2006 Ondas Sarietako Epaimahaiaren Aipamen Berezia izandako **El Coro de la Cárcel** (3koma, 2006) bezalako programetako musika originala konposatu du.

## 4

### Apirilaren 27ko ekitaldia

Deustuko Erriberako Artiach fabrika zaharrea. Gaur egun erabiltzen ez den fabrikaren barnean burututako ospakizun bat, egun Cofesa enpresaren jabegoa zeinek tokia egun horretarako ematen baitu. Gordóniz Sustatzaileak zabalgunea aparkaleku bezala erabilgarri jartzen du.

Ekitaldia **Estitxu Fernández** telebistako aurkezleak zuzenduko du zeinek **Marta Zabala** eta **Maite Ibáñez** historialariei Bilboko Udaletxeko Emakumearen sailak eskatutako “**Las Galleteras de Deusto. Mujer y trabajo en el Bilbao industrial**” han bertan eskuratu ahal izango den bere liburua aurkezteko bidea emango baitiete. Halaber **Pripublikarrak** elkarteak garatutako “**Galleteras, memoria activa**” bideoa erakutsiko da.

Ekitaldia Sukalde-ren lunch batekin eta **Pilar Baizán** artistaren soinudun interbentzioarekin amaituko da zeinek **Baseline**-k ([www.baselinenoise.com](http://www.baselinenoise.com)) bezala Galletagileei buruzko soinudun ikerketa bat egingo baitu. **Baseline** soinudun eta helmen emozional handiko pasarte txikien tratamendu xehetik abiatuta eginiko egitura sakon, kontraste nahiz loop-en manipulazioari dagokion soinudun proiektu elektronikoa bat da. “**Galleteras. Memoria Activa**”rentzako, **Baseline**-k irratiko iragarkiak berreskuratzen ditu, Orozco-ko egungo fabrika laneko soinua grabatzen du eta soinudun pertzepzio partikular baten bidez galletagile nahiz emakumezko langileentzako orokorrean omenaldia eginez atmosfera propio bat erreproduzituko du.



Horrekin batera, **Itxaso Diaz** bideo-egile eta dokumentalistak vj bezala saioa emakumezkoaren lana, bere ibilbidea, bere lorpenak, bere aniztasuna hala nola bere errebindikazioak erakusten dituzten irudien sekzio batekin osatuko du. Bere azkeneko hiru proiektuak **“Documentando Disonancias”**, enpresa eta artisten arteko kolaborazio saiakerei buruzko dokumental bat, **“tr3inta”**, hiri bateko jarduera sortzaileei buruzko dokumentu erlazional bat (Bilbo 2004-2005) eta **“Aires de cambio”**, bere jaioterria den Gallarta-ko meategien ixteari buruzko ikus-entzunezko instalazio bat eta horrek bai herriarentzako nahiz Bizkaiaren bilakaerarako suposatu duena, dira.

Galletagile hala nola zigarro-egile, zirgari, kotoi-egile, enpresa inportatzaile, etab. bezalako aro industrialeko batez ere emakumezkoenak diren beste gremioei buruzko dokumentazio ezberdina kontsultatu ahal izango da. Halaber emakume langileei buruzko egungo egoerari dagokion informazioa eskuragarri egongo da. *“Precarias a la Deriva”*, *“IKE. Retales de la reconversión. Trabajo femenino y conflicto social en la industria textil asturiana”* eta *“Historias de mujeres aceituneras en Alcalá de Guadaíra entre otros”*, etab. bezalako liburuak kontsultatu ahal izango dira.

Beste hainbat ikus-entzunezko materialen proiektzioa:

*“Las Sirgueras”*, Fernando Bernal “Ferber”, Urko Olazabal eta Elias Martinez (2006)

Getxoko zirgariari buruzko Fernando Bernal “Ferber”, Urko Olazabal eta Elias Martinezek zuzendutako Laburmetraia. Jentilak talde getxotarrak Las Arenasen urtero “Zirgariak” (Las sirgueras) antzerki herrikoia antolatzen du eta iazko laugarren edizioan, laburmetraia baten nahiz erriko itsasontzietako zirgariari buruzko liburu historiko baten aurkezpenak eskaini ziren.

*Ficciones Anfibias*, María Ruido (2005)

Ficciones Anfibias Bartzelonako (Terrasa eta Mataró) gerriko industrialean kokatutako ohiko ehungintzari dagokionez ezarritako ekoizpeneko baldintza berriek hiri hauetako biztanlerian eraginiko gizarte, ekonomia eta emoziozko aldaketekin, bereziki fabrika hauetako langile nahiz langile ohien bizitzari dagozkienak, lotutako azterketarako saiakera bat da.

“Las cigarreras”, Antxon Urrosolo (2007)

Hogei urte beranduago, Donostiako Tabacalera enpresako bost emakumezko langile ia haurrak zirenetik lan egin zuten fabrian bere aztarna propioak bilatzera itzultzen dira. Gaur egun kultura-sorrerako zentro batean bihurtutakoaren hutsik dauden gunek zeharkatzen dituzten bitartean, oroitzapenak bata bestearen atzetik aipatzen dituzte eta bere bizipen nahiz pasadizoen bidez emakumezkoak jasandako lan-munduratzeko industrial gogorra hala nola bere egunean zazpiehun emakume aterperatu zituen fabrian eginiko bere eskubideen errebindikazioa berrikusten dituzte: zigarro-egile donostiarrak. Laburmetraia hau hauentzako guztientzako omenaldia litzateke.

-“ Precarias a la deriva”. Precarias a la Deriva (2003)

Ikerketa dokumentala zeinek ez baitu ezkututzen, bere gordintasun guztiarekin, ekoizpen globaleko sistemak sexu, gizarte jatorri, jatorrizko herrialde, arraza, sexu orientabide, etnia, adin, heziketa eta abarren arabera eratzen dituen segmentazioak.

## 5

### **Erakusketa ibiltaria**

Bilboko kulturgune ezberdinetatik ibiltari arituko den erakusketa; argazki, video eta liburuz osaturikoa. Era honetan, proiektua bizirik egongo pantaiaren bi aldeetan; ordenagailu eta internet erabiltzaileentzat eta ez erabiltzaileentzat.

# Pri**publikarrak**

**Pri**publikarrak**** (

Pri**publikarrak** esanahi propioa duen hitz-jokoa da. Pribatua eta publikoa den horren tartean, pri**publikarrek** akzio, errepresentazio eta ahalmen eremu berri bat sortzen dute, esfera publiko eta pribatuaren banaketa hertsia eta tradizional baten aurrean, hierarkiak hautsiz. Botereak generoa izateari uzten dioneko bitarte horretan sortzen da, hain justu, pri**publikar** izatearen mitoa.

**Pri**publikarrak**** Aiora Kintana Goirinena, Olaia Miranda Berasategi, Saioa Olmo Alonso, María Mur Dean eta Oihane Ruíz Menéndezek osatutako taldea da; **hiru artista, soziologo bat eta arkitekto bat.**